

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 639. zenbakia

ARRASATEKO UDALBATZARRA

Astlehenean osoko bilkura egin zuten,
eta datozen lau urteotarako udal
antolamendua erabaki zuten



KULTURA: KALE ETA AUZOETAKO JAIK/11 • ZAHARRAK: JOSEPA ARREGI/13

AZALA: ALEX AZKARATE / ARGAZKIA: UBANE MADERA

OSASUN GIDA/24

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal Koop. E.**
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana 16 behea
(Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGÍ PLASTIK
PVC, aluminio termi-
ko eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor. 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Eraikuntzak



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel.: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63

Igeltserotza



Izcue
Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Gremioen Gidan
agertu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora

KALEINKESTA/ Abuztuen herrixen bizittasun handixague egon biherko litzake?



ATXEN MUNGIA
Langillie



RUBI PETXARROMAN
Langillie



PILAR MONTAÑA
Langillie



IÑAKI IRAZOLA
Langillie



LUIS ELORZA
Langillie



FELIPE IGLESIAS
Langillie

Ez dot pentsetan. Abuztue beti izen da tristie, gehixenok kanpora jueten garela-ko eta herrixe erdi hutsik geldiketean dalako. Gauzak dauzen moduen ikusitte, ez dot gehixagorik espero.

Bai. Abuztuen herrixari bizittasuna falta jako, baitte urtien ziherrak. Gaztiendako zerbitzu gehixago ipiñi ezkerok -ziniek-eta hola-kuek-, ez litzakez kanpora hain sarri juengo.

Bai. Dana ixten daue, eta geraketan garenok ez dogu ezertarako aukerarik eukitten. Ezin dozu kaferik hartu, dana itxitte dau-eta... Gaiñera, jente askok abuztuen lan egitten dau.

Ez dot pentsetan. Izen be, jente gehixena kanpora jueten da, eta geraketan dienak kanpuen pasetan daue egune. Zerbitzu gehixagoren premiñie edo biherra jentiek sortu biher dau.

Bai. Neu urtero geraketan naz, eta zerbitzu asko murritzute egoten die: tabernak, dendak, medikuek... Zerbitzuek errelebau ezkerok, jentiek ez leu-ke hutsunerik igerriko.

Ez dakit ze esan. Herrixe triste geraketan da, baiñe danok kanpora jueten garenez, normala da herrixe hola egotie. Dendarixek eta bestelakuek be oporrak hartzie normala pentsetan jat.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK APARKALEKUARI SARBIDE HOBEA Ferixalekuko ikastolaren jolastokiak autoa aparkatzeko aukera ematen du. Hala ere, ikasturtean, egunez eta gauez -baita asteburuetan ere-, ohiko sarreraren piboteak egoten dira. Horren ondorioz, autoek kontrako noranzkoan sartu behar izaten dute, eta hainbat arazo sortzen dira. Orain dela gutxi beste sarbidea zabaldu dute, eta arazoa konpondu egin dute.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KULTURA / 11

KIROLA / 9

Film laburra Arrasaten

Abuztuko oporraldia aprobetxatuz, mitologiaren gaineko filma grabatuko dute Arrasaten.

Los Chicos Boom taldea

Los Chicos Boom musika taldeari elkarrizketa egin diogu. Gazte horiek rock-and-rolla egiten dute.

Gasteiz Cup Txapelketa

Mondragoeko zazpi talde izan dira Gasteiz Cup Futbol Txapelketa eta emaitza onak lortu dituzte.

ASTEKO DATUA

7.500

EURO EMAN DITUZTE FILM LABUR BAT EGITEKO

Udalak 7.500 euroko dirulaguntza eman dio Basabelar elkarte-ari Arrasateko mitologiaren gaineko film labur bat egiteko. Film hori Andoaingo Arrate Fernandez zuzendariak egingo du.

BESTE EKESANA

Hego Euskal Herrian abere ustiapenen %80 desagertu egin da. Bizkaian 582 daude; Araban 162;

Gipuzkoan 669; eta Nafarroan 478. Ipar Euskal Herrian politikariak interes handiagoa izan dute, premia handia duten lurraldeak baino, ekoizpen handienak eta arazo gutxien dituzten lurraldeak laguntzeko. (...) Esneari salneurri egokia jartzea da baserritarren lana aintzat hartzeko eta konpentsatzeko modu bakarra. Baina, beste kontu garrantzitsu bat da lurraren banaketa urria eta lurra eskuratzeko zailtasunak (...) Lurren kudeaketa banatzeko proiektua badago, behar dutenek lurra eskuratzeko, baina ez dago garatuta. Arazoa handia da, ez dagoelako belaunaldien arteko erreleboa"

JON ZUAZABETIA
'GARA'/03-07-21

HERRITARREN BERBAK/ Ander Elortondo



Ni oporretara noa

Ni oporretara noa. Hori bai, nirekin bat maleta handi bat eramateko irrikan nago. Maleta handia behar du izan, bertan baitoaz azken urteko buruko min guztiak. Merkeagoak omen dira joan eta etorriko billeteak, baina maleta honen bidaia norabide bakarrekoa da, itsas ur sakonetan galtzeko asmoa baitaukat. Ados egongo ginatete maleta horretan gauza askoz gehiago sartzerako orduan: lehiaketa kutreen irabazleak kazetaritzat kontratatzen dituzten programa zuzendariak, horrelako zaborra emititzearren. Gizarte hau hobera eramateko asmorik edo ahaleginik egiten ez duten politikariak, eta abar luze bat. Baina maletan ez doaz buruko minak bakarrik, badaude atsegin handiz burutu ditudan hainbat betebeharrak, iraungitze (kaduzidade) data iritsi zaizkienak.

Denbora banaketa kontua besterik ez da. Honela, aspal-

dian niretzat aldarrikatzen nituen minutu multzo batekin, era berekoiaz nireganaturik, hasiko dut datorren ikasturtea. Amets egin nahi dut oporretan, gerora minutu guzti horiek niretzat bakarrik izango diren itxaropen faltsuak. Irudika nazazue minutuak zuhurkeriaz batzea nahi duen gizaseme bereko gisa.

"Ohorezko tokia zuri dagokizu, baina batez ere, irakurri ondoren gogoeta bat egin duenari, kritikatzeko izan bada ere"

Lerro hauek idazteri ematen diodan minutuak ere, berekoitasun neurrigabe beraren hatzparretan erori dira. Ondorioz, nire burua tradizionalizatzen ez daukadan arren, azken hitzak agurtzeko erabiltearen ohitura errespetatuko dut. Agurtzerakoan ohorezko lehen tokia, zuri dagokizu, irakurle, orain ere niri irakurtzen ari zarelako. Baina batez ere, nire lerroak irakurri ondoren gogoetaren bat egin duenari, idatzi dudana kritikatzeko bada ere. Horrek minutu guzti horiek ondo erabiliak izan direla esaten dit eta. Agur, ondo ibili eta hobe pasa oporretan!

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 25**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ZAPATUA, 26**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- DOMEKA, 27**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 28**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- MARTITZENA, 29**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUAZTENA, 30**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- EGUENA, 31**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 1**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelhehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelhehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

FERRERIASKO JAIAK
Etzi, zapatua, Ferreríasen jaiak ospatuko dituzte. 12:00etan txistulariek kalejira egingo dute. Arratsaldean, 17:00etan, umeendako jolasak, zaku lasterketa eta txokolate-jana egongo dira. 19:00etan, berriz, kaleko web orria aurkeztuko dute eta herri txikiteoa egingo dute, besteak beste. 21:30ean herri afaria egingo dute eta 23:00etan dantzaaldia, Gau Alai taldearekin.

KUBATAR JAI A GAZTETXEAN
Etzi, zapatua, kubatar jaiak egingo dute gaxtetxean. Gaxtetxea apaindu egin dute, eta 22:30ean karaokea, dantzak, musika eta *mojito*-a izango dira.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Gaur, eguena, *Delicatessen* filma emango dute Monterron parkean. 22:30ean izango da, doan.

KIROL ZERBITZUAK
Abuztuan Iturripeko kiroldegia eta Uarkape pilotalekua itxita egongo dira. Musakolako kiroldegia, berriz, astelhehenetik domekara egongo da zabalik, eta honako ordutegia izango du: 09:30etik 20:30era. Edozein zalantza izanez gero, deitu honako telefonora: 943 77 16 77.

AEDrenAGENDA

AED-REN BULEGO ORDUTEGIA
AEDren bulegoak uztailaren 30a arte egongo dira zabalik, 09:00etatik 14:00etara. Abuztuan itxita egongo dira eta irailaren lehen berriro zabalduko dituzte.

'EGUNKARIA'-REN ALDE
Egunkari berriaren aldeko batzordeak *Berria*-ren aldeko akzioak eta materiala saltzen dihardu. AEDn daude salgai.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

UCEM taldeko enpresen geroa oso iluna zen


Herriko hiru enpresa garrantzitsuren geroa oso ilun zegoen, UCEM korporazioaren 1992ko balantzeak kaleratu zirenean. Cerrajera, Transformados Metalicos eta Roneo enpresen jabe zen UCEMek urte hartan 6.761 milioi galdu zituen. Roneon 76 langile kanporatu gura zituzten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Madala"

Zuhaitz adar txikia.
—Azkarran madala ibiltze giñuan
Idurixon ganavei eulixak kentzeko.
—Keixa guzti onek madaltxo batek zeuzkan.



GORKA ORTEGA


HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 17	9 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 18	35 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	1,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	22 °C	13 °C	- l/m²
Eguena, 17	28 °C	9 °C	- l/m²
Egubakoitza, 18	35 °C	13 °C	- l/m²
Zapatua, 19	28 °C	15 °C	- l/m²
Domeka, 20	28 °C	16 °C	0,4 l/m²
Astelehena, 21	21 °C	18 °C	1,2 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Oporretan ere Arrasate Irratia zure konpainia!

Astean bukatu ditugu Arrasate Irratiko zuzeneko saioak, eta dagoeneko irratiko esatari eta teknikariek oporretako maletak prestatzen ari gara. Iraileko lehenengoan itzuliko gara, etenal-diaren ostean, indarberrituta.

MUSIKA LAGUN
Arrasate Irratia ez da, baina, udan isilduko; ez, horixe! Oporretara joan aurretik, ordenagailua musikaz bete dugu, bereziki zuondako, entzuleondako musika aukeratzin ibili gara herrian geldituz

gero iratiaren konpainia izan dezazuen. Eten barik, 24 orduz musika estiloen eskaintza zabala izango da; atsedean hartzeko musika lasaietatik, dantzarako eta jairako gogoia pizten duten doinu martxosoenera arte.

IRAILEAN ZUZENKO SAIOAK
Irailaren lehenengo egunean, ohi bezala, 09:00etan ekingo diegu zuzeneko saioei. *Uda Giroan* saioa izango da; herriko albisteak lehenengo eta udako azken tarte freskoekin. Urritik aurrera, udako

arropak erantzi eta neguko saioei helduko diegu. Berritasunak ez dira faltako, besteak beste, zu zuei izan zaitezkeelako mikrofonoaren aurrean.

KOLABORATZAILEEI DEIALDIA
Irrati esataria izan gura baduzu, Arrasate Irratian duzu horretarako aukera. Urritik aurrera, iluntzeetan, kolaboratzaileen hainbat tarte estreinatuko ditugu. Era guztietako proposamenak gura genituzke. Zatoz gugana edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

ASTEABIHITZETAN

Eusko Jaurlaritzak eta MCCk hitzarmena

Eusko Jaurlaritzak eta MCCk Ingurumen Hitzarmena sinatu dute. Taldeko 77 enpresek eta hornitzaileek indarrean dagoen ingurumen legedia egokitzeko konpromisoa hartu dute.

Akordioa Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu Sabin Intxaurrek eta MCCko presidente Jesus Cataniak sinatu zuten. Akordioak 2004ra arteko iraupena dauka, betiere luzaizeko aukerarekin. Hala ere, sei hilabetean behin batuko dira, hitzarmenaren jarraipen zehatza egiteko.

Dantza erakustaldi arrakastatsua

Joan den eguaztenean, Monterronen, Lore Gazteak dantza taldeak erakustaldia egin zuen. Horretarako, baina, gaitari eta txistularien laguntza izan zuten.

Erakustaldian Euskal Herriko lurraldeetako dantzak dantzatu zituzten. Arabako Mendiko Soina eta Arabako Pot-pourria dantzatu zituzten; Gipuzkoako dantzen artean, Monterronera hurbildu zirenek Aurrekua, Txantxoak eta Sorgin Dantza ikusi ahal izan zituzten; Nafarroako dantzen artean, Lizarrako Kalejirekin gozatu ahal izan zuten; eta Bizkaiko Banakako, Binako, Launako eta Txakarrankoa ere egin zituzten.

Kooperatiban sartzeko dirulaguntza

Eusko Jaurlaritzak urtero ematen du dirulaguntza hori, eta aurtengo eskaera egiteko epea uztailearen 31n amaituko da. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzak bi eratako laguntzak emango ditu. Lehena kooperatibaren baten edo lan-sozietateren baten bazkide moduan sartzeko dirulaguntza da.

Bigarrena, berriz, nekazari, abeltzain eta baso ustiapentan lan egiten dutenek nekazaritza kooperatiba baten sartu gura badute, laguntza hori izango dute.



Etixerat-ek protesta eguna domekan

Arrasateko Etixerat-ek protesta eguna egin zuen domekan. Sindikatuetak ordezkarietatik hasi eta kultura, euskara zein kirol taldeetako ordezkariek hurreratu ziren Seber Altubera, eta euskal presoen isolamendu egoera salatu zuten. Arrasateko alkateak ere bat egin zuen protestarekin.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Freskatzeko premia

Bueno, oporrak hartzeko bunea heldu zaigu. Esku artean daukazuen ARRASATE PRESS hau da ikasturte honetako azkena. Irailaren 5ean ikusiko dugu berriro elkar. Ordura arte, lanik egin behar ez duzuenok ahalik eta gehien aprobetxatu. Eta besteok, utsi goiari!

Udan kosta aldera joateko joera handia dago, baina aurten ez da girorik. Ez naiz


eguraldiaz ari -hala ere, iazkoa ikusitakoa, hori ere ikustekoa izango da-. Kantauri itsasoan galipot mordoa dago eta Imazek halakorik esan ez duen arren, ez dirudi oso osasuntsua denik sasoi honetan hondartzara joatea. Dagoen kaka guztia ezkututzen ari diren itxura guztia dauka. Turismoaren eta ostalaritzaren etekinak ez galtzarren, *Prestige*

horrek isuritako zikinkeria guztiak zelako kaltea egin lezakeen azaltzerik ez dute gura.

Inguruko urtegiak ere jendez lepo egoten dira. Zer egingo dugu, bada, igerilekuetara eta hondartzetara joan gura ez dugunok?

Bestalde, abuztuan herrian gelditzen direnek beste aukera bat dute: Arrasateko mitologiaren gainean egin behar duten film laburrean estra lanak egitea! Ez da broma!

ASTEKOIRUDIA



GOIATZ ARANA

AURKIKUNTZA GARRANTZITSUA EGIN DUTE LEZE TXIKIN; MASKOR BAT AURKITU DUTE

Maskor bat topatu dute Leze Txikin, han bizi izandako azken Neanderthalgo gizakiek apaingarri moduan erabilitakoa. Maskorra pieza esanguratsua izan liteke Neanderthalgo gizakien eta lehen Cro-Magnongo gizakien arteko igarobidea zelakoa izan zen argitzeko. Arkeologoek duela gutxira arte uste zuten

Neanderthalgo gizakiak sasi-tximinoak zirela eta ez zituztela portaera kultural garatuak. Azken boladan, ordea, kontrakoa frogatzen ari dira, eta horren adierazgarri da Leze Txikin aurkitu duten maskorra. Eta pieza landuta dagoela ikusten badute, aurkikuntza are garrantzitsuagoa izango da. /GOIATZ ARANA

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

POLITIKA/ Osoko bilkura berezia egin zuen udalbatzarrak astelehenean

EAJ-EAk, EBk eta Aralarrek osatu dute datorren agintaldiko Gobernu batzordea

U.M.

Astelehenean erabaki zituzten datozen lau urteotarako Udalaren funtzionamenduaren nondik norakoak. Besteak beste, batzordeetako kideak izendatu zituzten eta osoko bilkuren eta gobernu batzordeen egunak eta ordutegiak zehaztu zituzten.

Berez 21 zinegotzik osatzen dute udalbatzarra. Baina asteleheneko bilkuran bi gutxiago izan ziren: bata, Aralarreko, alderdiak jarleku bat hutsik uztea erabaki zuen-eta, Arrasateko Sozialista Abertzaleen legez kanporatzea salatzen. Eta, bestea Ezker Batuko Jose Antonio Baz zinegotzia. Hala, 19 kidek osatu zuten udalbatzarra: EAJ-EA koalizioa bederatzik, PSE-EE alderdiko bostek, Ezker Batuko eta Partidu Popularreko bina zinegotzik eta Aralarreko batek.

Esan beharra dago, era berean, ikusleen artean jende dezente elkartu zela, ezker abertzaleak egindako deiarri kasu eginez.

Hala, zortzi gai zituen lantzeko udalbatzarrak eta guztiak onartu zituzten. Hori bai, alderdien artean ez zen erabateko adostasunik izan.

Dena dela, orokorrean begirata, esan beharra dago datorren legegintzaldirako Gobernu batzordea EAJ-EAren, Ezker Batuaren eta Aralarren artean eratu dutela. Ondorioz, besteak beste, osoko bilkuretan, gehiengo izango luke, 13 zinegotzirekin. Oposizioan, berriz, PSE-EE eta PP alderdiak izango dira, zazpi botorekin.

OSOKO BILKURAK


Batzarrean hartutako erabakien artean, zehaztu zuten hemendik aurrera osoko bilkurak hileko azkeneko astelehenean izango direla, goizean, 09:00etan, alegia. Aralar alderdiaren abstentzioarekin eta gainerako alderdien aldeko botoekin onartu zuten puntu hori. Horren harira, ikusleen artean Utzune Urrizalki ASako zinegotzi ohia zegoen eta testu bat irakurri zuen, besteak beste, osoko bilkuren ordutegia kritikatzeko, herritarren parte hartzea zaildu egingo duelakoan.

GOBERNU BATZORDEA ETA BESTELAKOAK

Gobernu batzordeari dagokionez, astero elkartzeko da; astelehenean, 15:00etan. Zazpi kidek osatuko dute, esandako moduan, EAJ-EAk, EBk eta Aralarrek osatutako hirukoak (ondoko taulan dago kideen zerrenda). Eta, hiruko bereko kideak arduratuko dira Batzorde Informatzaileen funtzionamenduaz (zerrenda ondoko taulan).

DESADOSTASUNAK

Bestalde, gai zerrendako azken aurreko puntuan udal karguen



Aralar alderdiak hutsik utzi zuen jarleku bat, Arrasateko Sozialista Abertzaleen legez kanporatzea salatzen.

Zehaztu zuten osoko bilkurak hileko azkeneko astelehenean izango direla, 09:00etan

Arazo bat izan zen Ugalderean eta Lakuntzaren artean; baina konponduko dutela uste du EBk

Herri Anitzak egoera antidemokratikoa salatu, eta udal ordezkariak eskatu zuten

Izendapenetako batzuk

EAJ-EA koalizioa, Ezker Batuko eta Aralarreko kideak osatu dute datorren legegintzaldirako Gobernu batzordea: Agustin Ugarte (EAJ), Ines Aldai (EAJ), Nestor Arana (EAJ), Luis Etxeberriarteun (EA), Bixente Etxeberria (EAJ), Joseba Ugalde (Ezker Batua) eta Joxe Etxeberria (Aralar).

Batzorde Informatzaileei dagokionez, berriz, orain arte 13 batzorde baziren, hemendik aurrera sei izango dira. Hala, honakoak izango dira taldeak eta buruak: Barne Kudeaketa eta Kalitateko Batzorde Informatzailea (Pertsonala, Ogasuna eta Herritarrekiko harrera): Bixente Etxeberria; Hirigintza eta Obretako Batzorde Informatzailea: Agustin Ugarte; Euskara eta Kultura (euskara, kultura, hezkuntza eta kirolak): Ines Aldai; Zerbitzuak, Mantentze lanak eta Auzoak: Luis Etxeberriarteun; Gizarte Sustapena (Gizarte Zerbitzuak, Gazteria, Emakumeak eta Nagusiak): Joxe Etxeberria; eta Garapen Estrategikoa (Ingurumena, Enplegua, Etxebizitza Planifikazioa eta Garapen Ekonomikoa): Joseba Ugalde.

Bestalde, Agustin Ugarte lehenengo alkateordea izango da; eta Luis Etxeberriarteun bigarrena.

Eta, bestelako izendapenen artean, korporazioak ordezkariak egon behar duen organo kolegiatuarentako ordezkariak ere izendatu zituzten. Honako hauek: Debagoieneko Udal Elkarteak: Ignacio Lakuntza; Bixente Etxeberria; Nestor Arana eta Paco García; AUKEA: Andoni De Bedialauneta; Iturbide Egoitza: Joxe Etxeberria; Suradesa: Agustin Ugarte eta Joseba Ugalde; Kutxa: Agustin Ugarte eta Andoni De Bedialauneta; Ur Partzuergoak: Ignacio Lakuntza; Mendi Nekazaritza Elkartea: Luis Etxeberriarteun; Jakion: Luis Etxeberriarteun; Arrasate Musikal: Ines Aldai eta Bixente Etxeberria; Euskal Fundazioa: Jose Etxeberria; CEI-SAIOLAN: Joseba Ugalde eta Garaia Berrikuntza Gunea: Ignacio Lakuntza.

Bukatzeko, Auzoetako Batzordeak sortzea ere onartu dute. Hala geratu da: Erdialdean, Musakolan, San Andresen eta Uribarrin EAJ-EA koalizioak izango du gehiengo; eta Santa Marinaran, PSE-EEK.

dedikazioa eta asignazioa zuten lantzeko zinegotziek. Hain justu, puntu horrek desadostasuna piztu zuen alderdien artean. Izan ere, bestelako proposamenen artean, Paco García zinegotzi sozialistak erabateko dedikazioa izatea proposatu zuten. Alderdi popularrak horren kontra egin zuen; Antonio Palaciosen honakoa esan zuen: "Txapuz hutsa da soldaten banaketa. Eta ez dauka zentzurik oposizioa kide bati erabateko dedikazioa ematea kargurik ez duenean". Ignacio Lakuntza alkateak erantzun zuen, besteak beste, laz Eudelekin egindako hitzarmen baten ondorio dela erabaki hori. Ander Rodríguez emandako %60ko dedikazioa ere kritikatu zuen PPKo kideak. Esan zuen zenbait alderdi diskriminatu egin dituztela. Eta, oro har, batzarra baino lehen egon den informazio falta kritikatu zuen.

Bere aldetik, EAKo hiru kideek proposatu zuten Paco Garcíaren gaia aurrerako uztea. Hala, bozketan PSE-EEren eta EAJren aldeko botoekin onartu zuten proposamena. Ezker Batua eta Aralar abstentitu egin ziren. Eta, EAK eta PPK kontra bozkatu zuten.

SOZIALISTEN ESKAERA

Bere aldetik, Paco García ekijitu zuen Bozeramaileen Batzordea abiaraztea. Gaineratu zuen herritarren ongizatearen alde egin beharreko guztietan lan egiteko asmoa dutela, eta uzten dieten guztietan parte hartzeko. Esan zuen, era berean, orain arteko lan egiteko modua alde batera utzi eta, Udalean transparentzia nagusitu beharra dagoela eta udalbatzarreko kide guztien partaidetza bultzatu beharra dagoela. Horren harira, bozeramaile sozialistak kritikatu egin du proiektu berria antolatzeko orduan Gobernu batzordeak PSE-EE alderdiarekiko izan duen jarrera. Paco García-ren esanetan, ez diete informaziorik eman eta ez dute euren partaidetzarik gura izan lan egiteko. Edozelan ere, horrekin batera adierazi du batzordea gobernuaren proiektuaren filosofiarekin, eta sozialisten zenbait proposamen bere egin dituztela proiektu horretan.

HERRI ANITZA

Bukatzeko, esan beharra dago batzarraren amaieran, aretoan zeuden zenbait ikuslekin *No Apartheid* zioen kartelak erakutsi zituztela. Era berean, tartean zegoen Utzune Urrizalki testu bat irakurri zuen. Salatu zuen maiatzeko hauteskundeetan 2.716 arrasatearren botoak jaso zituztela, eta oraindik ez dutela harremanik izan Udaleko alderdiekin dagokien ordezkariak gauzatzen; hain zuzen, besteak beste, herritarren parte hartzeko aukerarik ez dutela esan zuen.



Arrasateko zenbait natura-gunetako kondairetan oinarrituko dira, besteak beste, filma grabatzeko orduan.

ARTXIBOA

ZINEMA/ 'Natura' izeneko film laburra grabatuko dute Arrasateko zenbait gunetan

Mitologiaren gaineko filma grabatuko dute Arrasaten

U.M.

Film labur bat grabatuko dute Arrasaten. Abuztuan filmatuko dute, herrian jende gutxiago dagoela aprobetxatuta. Mitologia gaietan oinarrituta, besteak beste, Arrasateko paraje naturalak grabatuko dituzte. Lau ume izango dira protagonista; bi arrasatearrak.

Natura izena izango du Arrasaten grabatuko duten film laburrak. Hala kontatu dio filmaren zuzendari izango den Arrate Fernándezek Arrasate Irratiari. Kontatutakoaren arabera, ingurumenarekin lotutako Basabelar elkarteak izan zuen ideia eta hura gonbidatu zuten filma egiteko.

MITOLOGIA ETA NATURA

Lehen esandako moduan, mitologiarekin lotutako gaiak landuko dituzte film laburrean. Kobate, Kobaundi, Udalaiz, Besaide... moduko inguruak grabatuko dituzte. Arrate Fernándezek kontatu digun moduan, natura-gune horietan existitzen diren kondairetan oinarrituta. Era berean, Arrasateko inguru naturalak grabatzeko ere aprobetxatuko dute, filmean erakusteko.

ARRASATEARRAK BEHAR DIRA

Umeak izango dira *Natura* filmaren protagonista. Guztira, lau. Eta, horietatik bi arrasatearrak. Baina, oraindik ez dago zehaztuta zeintzuk izango diren. Hori bai, zinean inolako esperientzia bari-

koak izango direla esan du zuzendariak.

Umeekin batera, pertsonaia mitologikoak ere azalduko dira filmean. Horiek egiteko Sebastopoleko Titiriteroen eta Sorgin Koba produktorearen laguntza izango dute.

Horrez gainera, bestelako teknikari eta langile ugari ibiliko dira lanean. Horietatik asko arrasatearrak. Eta, extra moduan lan egiteko jende gehiago hartzeko asmoa dutela jakinarazi digute. Batez ere filmean azalduko den aklarrea grabatzeko. Hortaz, horrelako esperientziaren baten parte hartu gura duena adi ibili dadila!

Arrasateko Udalak 7.500 euroko diru laguntza eman dio Basabelar elkarteari filma egiteko.

LABUR

Abuztuko oporrak direla-eta kontuan hartzeko zenbait erakunderen ordutegiak

Udala abuztuan zabalik egongo da, baina gutxieneko zerbitzuak eskainiko ditu: diru kontuak, hilerria, udaltzaingoa... Hori bai, zerbait gertatuz gero, izango da norbait horri kasu egiteko. Adibidez, alkatea bera ez dagoen egunetan haren ordezkaria egongo da. Ordutegia 10:00etatik 14:00ak artekoa da. Monterron, berriz, abuztuaren 11tik 24ra itxita egongo da. Eta abuztuaren aurreneko eta azkenean asteetan goizean egongo da zabalik, 09:30etik 13:30era arte. Eta KZGunea uztailearen 30etik irailaren 1era arte egongo da itxita.



Anorexiaren gaineko liburua salgai dago

Herenegun, eguaztena, aurkeztu zuten *Yo contra yo, la cara oculta de Anna* liburua. Amaia Arroyo arrasatearrak anorexiaren gainean idatzitakoa da. Horrela, aurkezpen ekitaldian idazlearekin batera anorexiaren eta bulimiaren inguruko ACABE elkarteak kideak laguntzen izan ziren. Udaletxeko areto nagusian aurkeztu zuten liburua, eta esan beharra dago jende mordo egon zela ekitaldian, kanpoko komunikabideren bat barne. Amaia Arroyok gogorarazi zuen, besteak beste, anorexia gorputzekoa baino gehiago, buruko gaixotasuna dela.



URONDO


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

GAZTETXOAK PROTAGONISTA MAALAKO JAIETAN

Aurtengo Maalako jaietan jai giro polita izan da. Domekan hasi ziren jaiak. Eguerdiko hamabietan meza izan zen San Frantzisko elizan, eta mezaren ondoren, Maalako erretiratuendako luntxa izan zen Plus Ultra tabernan. Benetako jai giroa, baina, martitzenean izan zen. Arratsaldeko bostetan hasita, Mondragoeko gaztettoen Maalako jaietan antolatzen dituzten jokoekin gozatzeko aukera izan zuten. Gaztetto mordoak hurbildu zen Maala kalera, eta jokoetan parte hartu zuten guztiek opariak izan zituzten. Antolatzaileek nahiko lan izan zuten neska-mutiko guztiak kontrolpean izaten, eta sariak banatzen ibili zirenek ere gogotik izerditu zuten. Gaztettoek txokolatea amaitu zutenerako txikiteo ordua zen, eta nagusiek hartu zuten jaien errelebu. Maalako tabernetan txikiteoa egin eta gero, kalean bertan afaldu zuten, ederto, gainera, giro paregabea egiten zuen-eta. Gero, Maalakoek dantzan egiteko duten abilezia erakusteko aukera izan zuten, eta etxafuegoekin amaitu zen jai.





ARRASATE PRESS

Cafe Okorotegi taldekoek, 11 urterekin, futbolerako daukaten gaitasuna erakutsi zuten.



ARRASATE PRESS

Cantera San Josepe taldeak txapelketa ona egin zuen, baina penaltietan zortea ez zuen lagun izan.



ARRASATE PRESS

1991n jaiotako Joma Arkupeko jokalariek 6-2 irabazi zioten Arrasateko Solano Txikiri.



ARRASATE PRESS

1992-93an jaiotako Joma Arkupekoek erraz irabazi zuten finalean.

FUTBOLA

Aurtengo Gasteiz Cup Futbol Txapelketan argi geratu da Arrasatek harrobi ona duela

Solano Txikiko hiru taldek, Joma Arkupeko bi taldek, Cafe Okorotegik eta Cantera San Josepek ordezkatu dute Arrasate Gasteiz Cup Futbol Txapelketan

XABIER URZELAI

Jokatu berri den Gasteiz Cup Futbol Txapelketan Mondragoeko zazpi talde izan dira. Guztira 3.000 neska-mutikok hartu dute esku txapelketan, eta Mondragoeko futbolariak txapelketa biribila egin dute.

Aurten ere talde mondragoetarek ez dute kalerik egin uztailan jokatzeko den Europa mailako futbol txapelketan. Txapelketak zortzi urte egin ditu, eta urte batetik

bestera gero eta talde gehiagok ematen dute izena. Aurten 3.000 neska-mutiko ibili dira txapelketan, 107 taldean banatuta. Estatuko talde asko izan dira txapelketan, baina, horrez gainera, Frantziako, Portugalgo, Danimarkako, Italiako eta Mexikoko taldeak ere izan dira.

ARRASATEKO ZAZPI TALDE

Azpimarratzekoa da Joma Arkupeko bi taldeek egindako lana, bi taldeek lehenengo postua eskuratu zuten-eta. 1991n jaiotakoak

Arabako, Portugalgo, Extremadurako eta Galiziako taldeak atzean utzita iritsi ziren finalera. Finala, gainera, Arrasateko beste talde baten kontra jokatu zuten: Solano Txiki taldearen kontra, hain zuzen ere. Joma Arkupeko gazteek 6-2 irabazita eskuratu zuten txapelketa.

1992-93an jaiotako Joma Arkupeko gazteek, berriz, Arabako San Prudentzio taldearen kontra jokatu zuten finala, eta mondragoetarrek sekulako jipoia emanda irabazi zuten (13-0). Gasteiz Cup txapelketa

ona egin dute Joma Arkupeko mutilek, baina ez da lehenengo aldia izan, orain dela bi urte ere txapeldunak izan ziren-eta.

14 urtekoen mailan, Canteras San Josepe taldeak txapelketa biribila egin zuen, finalera iritsi zen-eta. Txapelketako lehen partidua Agurainen kontra jokatu zuten, eta mondragoetarrek 3-0 nagusitu ziren. Blanquefort talde frantziarraren kontra banakoa egin zuten eta Portugalgo Guarda taldeari justu-justu irabazi zioten (1-0). Finalerdietarako txartela

eskuratuta, Arabako Abetxuko taldearen kontra 2-1 irabazita iritsi ziren finalera, eta finalean ibarreko bi talderen arteko derbia jokatu zen: Arrasate-Aretxabaleta. Bi taldeek ere partidu ona egin zuten, baina ez zen golik izan. Azkenean, penaltiek erabaki zuten UDA izango zela txapelduna.

Ezin ahaztu Solano Txikiko gainerako taldeek eta Cafe Okorotegi taldeak egindako txapelketa. Datorren urtean gaitza izango da aurten egindakoa hobetzea.

ELKARRIZKETA

MARIA JOSE GIL/ATLETA

“Emaitzak baino gehiago, lasterketa ondo amaitzeak ematen dit poza”

XABIER URZELAI

Maria Jose Gil Puerto Ricon egon berri da, Beterano Mailako Munduko Txapelketan. Pozik etorri da handik, emaitza onak egin ditu-eta. Hala ere, 10.000 metroko lasterketan min hartuta erretiratu zen.

Zer moduz hanka?

Orain hobeto. Bost mila metroko lasterketan zerbait nabaritu nuen, baina lasterketa ondo amaitu nuen. Hamar mila metroko lasterketan, berriz, bederatzi itzuli geratzen zirenean min hartu nuen hankan eta ezin izan nuen lasterketa amaitu. Pena eman zidan, lehenengo postuetan amaituko nuen-eta. Orain errehabilitazioan nabil, eta lasai nago.

Zer-nolako esperientzia izan da Puerto Ricokoa?

Niretako sekulako esperientzia izan da. Alde batetik, emaitza onak lortu ditudalako, eta bestetik Puerto Ricon gauza asko ikusi ditudalako. Han konturatu naiz adina ez dela muga, 82 urteko amona korrika ikusi dut-eta. Rosarito zeukan izena, eta ehun metroko lasterketa egin zuen, baina ehun metroak eginda ere korrika jarraitu zuen. Zera esan zidan: “Maria Jose, Jainkoak gura badu Donostian elkartuko gara 2005ean”.

Urte asko daramatzazu korrika, baina berandu hasi zinen.

Bai. 41 urterekin hasi nintzen korrika. Ebakuntza bat egin zidaten, eta medikuak esan zidan kirola egiteko. Gizonarekin hasi nintzen korrika, eta Urkuluri lehenengo itzulia eman nionean sekulako poztasuna hartu nuen. Berrogeita bederatzi minutu behar izan nituen, eta orain, hogeita bederatzi minutuan ere egin izan dut itzulia. 1992an hasi nintzen txapelketetan parte hartzen, eta gaur arte.

Urte biribila izan da aurtengoa, baina onena izan da?

Ez, aurtengoa urte polita izan da, baina lehenago ere lorpen handiak egin ditut. 1993an Donostian jokatu zen Munduko Maratoi Txapelketan lehena izan nintzen. Gero, beste bost maratoi egin nituen, eta Behobia-Donostia lasterketan bigarren denbora onena daukat. Edozelan ere, lorpen horiei nik ez diet garrantzi handiegirik ematen; niretako garrantzitsuagoa da lasterketa ondo amaitzea. Horrek poztzen nau.

Lagun ieza dazazu aurtengo denboraldia gainbegiratzen.

Lehenengo, Donostian jokatu zen Europako Txapelketako pista estaliko 3.000 metroko laster-



XABIER URZELAI

“Puerto Ricon konturatu naiz kirola egiteko adina ez dela garrantzitsuena”

ketan brontzea lortu nuen. Gero, Euskadiko Txapelketan urrea lortu nuen 5.000 eta 1.500 metroko lasterketan, eta Tarragonan jokaturako Espainiako Txapelketan lehena izan nintzen 5.000 eta 1.500 metroko lasterketan. Eta Puerto Ricon jokatu berri den Munduko Txapelketan, kro-sean bosgarren izan naiz eta 5.000 metroko lasterketan seigarren.

Gazte askok ez dute ondo hartuko amona batek korrika egiten atzean uztea.

Ez, asko haserretu egingo dira, eta niri asko gustatzen zait hori. Horrelako anekdota asko daukat. Behin gizonarekin eta lagun batekin Aramaiora joan ginen korrika. Itzuleran gogor hasi ziren, eta atzean utzi nin-

“Gazte asko haserretu egiten dira korrika atzean uzten ditudanean, eta ni poztu egiten naiz”

duten. Iturripera iritsi aurretik, baina, harrapatu eta atzean utzi nituen. Zapatila berriekin ote zebiltzan galdetu nien.

Zer esango zenieke horren gazte ez direnei baina kirola egin gura dutenei?

Anima daitezela, nik ezin diet besterik esan. Kirola egitea osasuntsua dela, eta hori egiteko adinak guztiok uste dugun baino garrantzi txikiagoa duela.

Abuzturako ze asmo?

Orain lasai nabil, ezin dut-eta korrika larregi egin. Gurago dut hanka ondo osatu, baina abuztuan Malagara noa, eta seguru han lasterketaren baten parte hartuko dudala. Korrika egiten duten lagunak daukat han, eta berehala berotzen gara.



Oporretan ere

etxeko lanak
banatu

eta udan...



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sailsa ■

ELKARRIZKETA

LOS CHICOS BOOM/MUSIKA TALDEA

“Rock-and-roll musika talde zaharren diskoak guk geuk bilatu behar izan ditugu”

IKER BARANDIARAN

Los Chicos Boom taldeak denbora gutxi darama kontzertuak egiten. Edozelan ere, taldea osatzen duten musikari gazte horiek punk-rocka eta rock-and-rolla egiten dute, eta oso maila ona dute.

Aurretik taldeko gehienek Fase Terminal musika taldean jotzen zenuten. Azaliezaguzue pixka bat...


Orain dela lau urte, Borja (baxua), Jon (gitarra) eta Enaitz (bateria jotzailea) elkartu eta gaztetxean entseatzen hasi ginen. Batez ere, punk eta Oi! musika taldeen kantuak jotzen genituen. Aurretik Borjak eta Enaitzek Arrasate Musikalen instrumentuak jotzen ikasi zuten. Bost kontzertu eman genituen: hiru Arrasaten, bat Oñatin eta beste bat Elorrión. Horrez gain, ia egin zuten 70eko Hamarkadako I. Jaian Chuck Berry, Kiss, Tequila, Ted Nugent eta beste hainbaten kantuak jo genituen.

Harritzekoa da zuen adinean halako taldeak ezagutzea...

Baliteke. Gura anai-arreba zaharrek ez digute halakorik erakutsi, baina gure lagun baten anaiak La Perrera eta beste talde batzuk utzi zizkigun. Hortik aurrera, gu hasi ginen musika horren bila.

Zer dela eta desagertu zen Fase Terminal?

Arrazoi askorengatik. Taldeko batzuek ez genuen punk eta Oi! musikarik egin gura; gaztetxea itxi zutenean, lokal barik gelditu ginen; eta horrez gain, The Juke-



box taldeak kontzertu mordoa egin zituen –Enaitzek The Jukebox taldearekin ere jotzen du–.

Eta handik denbora gutxira Los Chicos Boom jaio zen...

Bai, gure artean punk-rocka eta rock-and-roll musika egiteko ados jarri ginen, eta abestiak prestatzen hasi ginen. Guk idatzitako sei abesti ditugu. Horrez gain, beste talde batzuen kantuak ere jotzen ditugu: Eddie and The Hot Rods, Bad Company... Uarkapeko gaztetxearen inaugurazioan egin genuen estreinakoa, eta beste bi kontzertu eman ditugu. Fase Terminal-ekin alderatuz, beste musika mota bat egiten dugu, eta beste izen bat asmatu beharra zegoen.

Nork egiten ditu hitzak? Eta zer dela-eta aukeratu duzue ingelese?

Abestien hitzak nik egiten ditut (Danel). Kontu surrealista samarrak dira: neska kontuak, zapatu gauak... Samurragoa egiten zait ingelesez abestea, ez ingelese hain ondo dakidalako, baidiz eta musika gehiena ingelesez entzuten dudalako. Gainera, rock-and-rolla egiteko oso hizkuntza aproposa da. Hala ere, baliteke inoiz euskaraz edo gaztelaniaz abestea.

Taldekideok beste talde bat ere baduzue...

Bai, Fat Lizzy. 70eko Hamarkadako I. Jaian eman genuen lehen kontzertua. Thin Lizzyren kantuak jotzen ditugu: hamar bat kantu, gutxi gorabehera. Gehiago joko genituzke, baina ondo prestatzeak lan handia dauka. Noizbehinka Fat Lizzyren kontzertuak egiteko asmoa daukagu.

“Taldeko hiruk Arrasate Musikalen eta Jesusi Etxebarriarekin ikasi genuen”

“Fase Terminal-ekin punk eta Oi! musika egiten genuen, baina musika estiloa aldatu egin dugu”

“Partaideok Fat Lizzy taldean ere jotzen dugu; Thin Lizzyren kantuak jotzen ditugu”

Abuztuan ere herriko hainbat auzo eta kalek jaiak ospatuko dituzte

Uztaila bukatzerako eta Arrasaten hainbat kale eta auzok jaiak ospatuko dituzte. Etzi, zapatua, Ferrerías kaleak Santa Ana jaiak ospatuko ditu; abuztuaren 3an Udalak; eta 22tik 24ra Urribarik.

Etzi, zapatua, Arrasateko kale zaharretariko baten, Ferreríasen, bizi direnek Santa Ana jaiak ospatuko dute. 12:00etan, eguerdiko txikiteoa alaitzeko, txistulariek kalejira egingo dute. 17:00etan haur jolasak, zaku lasterketa eta txokolate-jana anto-

latu dituzte. 19:00etan, nagusiak kalera irtengo dira eta hainbat ekitaldi egingo dituzte: besteak beste, Ferrerías kaleko web orriaren aurkezpena, Ostantz-en; txistularien kalejira; herri txikiteoa; eta beste hainbat joko eta lehiaketa. Gauean, urtero moduan, herri afaria egingo dute eta afalostean dantzaldia egongo da Gau Alai taldearekin.

UDALA ETA URIBARRI

Hala ere, behin Santa Marina, Maala eta Ferrerías kale eta auzoetako jaiak bukatu arren, bada iraila heldu aurretik auzoetako beste jairik herrian.

Abuztuaren 3an Udalako auzotarrek San Esteban jaiak ospatuko dituzte. Urtero moduan, herrian gelditzen diren arrasatear urriek herriko auzo eder horretan bat egingo dute. Ziur aurten ere nagusiendako dantzaldia eta umeendako jokoak antolatuko dituztela.

Horrez gain, abuztuaren bukaera aldera, hileko 22tik 24a bitartean, Uribarri auzoan San Bartolome jaiak ospatuko dituzte. Azkeneko urteotan, auzo horretako kaletarrek eta baserri-uzoan bizi direnek bat egin dute jailetan. Aurtengo jaien nondik norakoa oraindik finkatu barik dago.



Besteak beste, Udalako auzotarrek ospatuko dituzte jaiak abuztuan.

ARTIBOIA

BEHEKODENDATIK

Juan Mari Zuazubiskar

LENIZ MOTOR DENDAKUE

XABIER URZELAI

Juan Mari 13 urte daroie Leniz Motorren lanien, baiñe lehenau be motor dendie euen hor. Oin, motorrak saldu eta konpontziaz gain, nekazaritzako tresnak be saldu eta konponketan dittu. Mondraguetarra da Juan Mari, Udelakue. Profesionalien ikasi euen, eta ordutik hona ikastaro asko egin dittu, rezikletako.

Txikittan ze gure zeuen izen?
Gauza asko; taxista, adibidez.
Eta oin, hartuko zeuke lanbide hori?

Ez, hamen ondo nau, baiñe beste lanbide batzuk be probauko neuke.

Ze eskatuko zeuskio alkate barrixari?

Politika kontuetan ez naz sartzen, baiñe gauza asko dauz egitteko.

Drogak legalizauko zeuke?
Ba... ez dakit. Ez dauket argi, baiñe ezetz esango neuke.

Eta prostituziñue?
Hori munduko ofizio zaharre-na da; hortan...

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Oso pelikula gutxi ikusten dot/ Irakurri be ez dot larregi egitten/ Musikie danetik entzuten dot.

Nora juengo zitzake gustora? Oin? Mendira.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Baiñu-jantzi batekin nahiko.
Etxeko lan gorrotagarrixena?

Danak, ohittu barik gauz-eta.
Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez naz oso juergazalie. Niri kanpora urtetie gustetan jaten.

Puntuau Mondragueko girue.

Zazpikue.
Bizio bat?

Ez dauket bizio haundirik.
Abuzturako ze asmo?

Egun erdiz lan egittie.
Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Lana gogoz egittie, eta klien-



“Karnetak diela, segurue dala... Ez daue iñungo errextasunik emuten motorrien ibiltteko”

tiekin tratuen egitten jakittie.
Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?
Horrek problemak besterik ez dau ekarten.
Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?
Arrazoi asko dauz; azkenaldixen hamengo egunkarixekin pase-tan dabillenagaittik, adibidez...
Denpora librien ze egitten dozu?
Trankil egoten ahaleginddu, lanien nahikue buruhauste eukitten dittut-eta.
Pertsona baten, zertan fije-tan zara lehenengo?
Emakumie edo gizona dan...
Afiziñue lanbide billakatu

“Hirixetan neguen be ibiltten die motorrien; hamen, barriz, lau tantaka egin eta ez da motorrik ikusten”


jatzu?
Bai. Gustora egitten dot lan, motorrak beti gustau izen jat-eta. Hala eta be, batzuetan berotute urteten dogu hamendik.
Errextasun gutxi emuten daue motorrien ibiltteko.
Bai, hori be egixe da, eta hontan gabitzenok asko igerri dogu hori. Batetik, karnet mordue atara biher die; eta, bestetik, seguruek oso garesti dauz.
Zeure ametsetako motorra? BMW bat.
Udan ondo, baiñe neguen motorraz...
Hirixetan neguen be ibiltten die; hamen, barriz, lau tantaka egin eta ez da motorrik ikusten.

NIREBIDAIAHURA/ Jon Ajuria

Norvegiara / 2002ko abuztutik 2003ko ekainera arte

Jon Ajuriak, Erasmus bekari esker, Norvegian amaitu ahal izan ditu Kimika ikasketak. Hamar hilabete egin ditu Norvegian, Bergenen, hain zuzen, Ikasketak amaitzera joan bazen ere, hamar hilabete horiek ondo baino hobeto aprobetxatu ditu Jonek, eta hilabete horietan egindako hainbat bidaiaren berri emango dizuegu tarte honetan.

Abuztuan joan zen Norvegiara. Lehenengo asteak ez ziren oso errazak izan, baina berehala ohitu zen. Lehenago ere egonda zegoen Norvegian, eta bazekien hango parajeeek eskaintzen dituzten aukera guztiak ez aprobetxatzea bekaturia izango zela. Hamar hilabete horietan lagun asko egin ditu Jonek, baina lagun berezi bat izan du: bizikleta. Hamar hilabeteak bi gurpilen gainean egin ditu Jonek, eskolara joateko bizikleta behar zuen-eta. Horrez gain, asteburuetan egiten zituzten txangoetan ere bizikleta ez zuten alde batera uzten.



“Norvegia oso polita da, baina baita garestia ere, oso garestia”

Lehenengo bidaiaria hiru egunekoa izan zen, eta Bergenetik Handargerko fiordoraino joan ziren. 160 kilometro egin zituzten, eta motxilak bizkarrean eramane zituztenez, gogor samarra izan zen; hala ere, Jon ez zen bidaiaria hartaz damutu, hango parajeez bertatik bertara gozatu ahal izan zuen-eta: “Parajeeak sekulakoak dira, gaitza da berbekin azaltzea, bertara joan eta ikustea da onena”. Eguraldi ona izan zuten bidaiaria, baina azken egunean elurra egin zuen, eta zelaia berehala zuritu ziren. Handargerko fiordoaren gainean galdetzea ere ez du merezi: “Benetan ere polita”, Jonek esanetan.

Bidaiaria hartan Norvegiako egurrezko hotel zaharrenean egon ziren, baina lo egurrezko etxe txikietan egiten zuten: “Norvegiarrak hasieran hotzak dira, baina berehala zabaltzen dira. Hori bai, bizitza maila oso garestia da, okela jatea ia luxua zen guretako”. Irailean Jonekin jarraituko dugu, hamar hilabetearen laborategian egoteaz gain, beste ehunka gauza ere egin ditu-eta.

XABIER URZELAI



Handargerko fiordora bidean egindako argazkia.



Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiaria kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ELKARRIZKETA

JOSEPA ARREGI/ERRETIRATUA

“Ni ez naiz inoiz politikan sartu; semea Euskal Herrira ekar dezaten gura dut”

IKER BARANDIARAN

Josepa Arregi 1919ko apirilaren 8an jaio zen, Garratz baserrian. Oso gazte alargundu zen, eta berak bakarrik atera zituen aurrera seme-alabak. Azken 19 urteotan preso dagoen semea Euskal Herrira ekar dezaten gogor dabil lanean.

Baserrian lan handia egin zenuen?

Bai. Ortu handia geneukan: egubakoitzetan Arrasaten saltzen genuen, zapatuetan Oñatin eta domeketan Bergaran. Aita abargina zen, eta hari laguntzen genion. Ia ez nuen eskolara joateko astirik izan.

Baserritik kanpo beste lanen bat egin zenuen?

Bai, horixe. 11 anai-arreba ginen eta etxean soldata bakarria genuen. 15 urterekin Arrasateko Etxaurren etxean neskame lanean hasi nintzen. Bi urte egin nituen han, baina gerra hasi zenean, ugazabek beldurtu eta Gastizera jo zuten. Baserrira bueltatu nintzen eta urtebetez Elore-giko estankoko tabernari lanak egiten lagundu nuen. Gero, *Martin Bixi*-ren etxean neskame hasi nintzen, baina ugazabak oso jenio txarra zuen eta arrazoi barik kalera bota ninduen. Gero, Monte tabernan lauzpabost urte egin nituen lanean, 1941ean ezkondu nintzen arte.

Oso gazte alargundu zinen, ezta?

Bai, 1941ean Tomas Zabarte-ekin ezkondu nintzen. Senarra sozialista zen eta 1936ko gerran Dragoiak batailoiarekin egin zuen borroka. Senarra gaixotu eta lau urtera hil egin zen. Senarra bizi zela Gazteluondora bizi izatera joan ginen eta etxearen atzeko aldean artaziak egiteko tailerra ipini genuen. Geroago, tailerreko bazkideok Zigorrolan Hirubide galdaketa ipini genuen. Lekuz aldatu genuen, baina porrot egin zuen. Hiru seme-ala-



IKER BARANDIARAN

bekin Gazteluondora bueltatu nintzen, eta umeak hazi nituen, mutikoak meza-mutil bidalita, astebururo Legutianoko senideen etxean lan eginda...

Aspalditik seme gazteena kartzelan dago...

Bai. Semeak 21 urterekin bestaldera alde egin zuen, eta hiru bider sartu dute kartzelan. 1984an harrapatu zuten azkenengo aldiz, orain dela 19 urte. Kartzela askotan egon da, eta sasoi gogorrena Kanarietako Salto del Negrón igo zuen. Bisita egitera joan nintzen aldi baten, Jesus Marik berrogeitik gora egun zeramatzan gose greban. Ez zen oinez ibiltzeko gauza, eta sututa Kanarie-

“Oso gazte alargundu nintzen, eta pentsio barik hiru seme-alabak hazi nituen”

tako apezpikuarengana jo nuen, eta laguntzeko eskatu nion. Milaka kilometro egin ditut semea ikusteko.

Hainbat ekitalditan parte hartu duzu...

Bai, Bordelen, Genevan eta

Estrasburgon hainbat alditan egon naiz, giza eskubideen alde egiten. Inoiz poliziak iraindu eta kolpatu egin gaitu, baita jendeak agurtu eta txalotu ere. Euskal Herria hiru bider oinez zeharkatu dut, *Ttipi Ttapa* lelopean, eta Artzain Onaren elizan bi eguneko gose greba egin nuen. Ni ez naiz inoiz politikan sartu. Izan ere, nire lehenengo mutil-laguna karlista zen -baina ez zioten utzi nirekin ibiltzen, txiroa nintzelako-, eta azkenean sozialista batekin ezkondu nintzen. Semearengatik borroka egiten dut, semea eta gainerako presoak Euskal Herrira ekar ditzaten, eta gutxiago sufri dezagun.

LABUR

Toki Argi elkarteko bazkide zaharrenak omendu zituzten

Santa Marinako jaietan Toki Argi auzoko lagun zaharrenak omendu zituzten. Bazkaltzera joan zen gizon nagusiena Manuel García izan zen (90 urte) eta emakume zaharrena, Ursula Aspe (86 urte).

Abuztuko hainbat egunean taberna zerbitzurik ez

Abuztuko oporrak direla-eta, datorren hilabeteko hainbat egunean ez da taberna zerbitzurik egongo erretiratuen elkarte batzuetan. Abaroan, esaterako, abuztuaren 4tik 31ra egongo da itxita taberna. Urribarriko erretiratuen elkarte, ostera, tabernariak abuztuaren 10etik 25era hartuko dute jai.

Irailean hainbat berbaldi Toki Argi elkartearen

Toki Argi elkarteko erretiratuek oporren osterako hainbat berbaldi antolatu dituzte. Besteak beste, irailaren 16an, jabego horizontalaren gainean egingo dute berba; besteak beste, etxebizitzaren eta auzokomunitateen gainean. Irailaren 26an, berriz, zoriontasuna izango dute berba. Biak 17:00etan izango dira.

Toki Argi elkartekoak Costa Bravara joango dira

Toki Argi elkarteko erretiratuak Costa Bravan egongo dira irailaren 27tik urriaren 3ra. Hainbat herri eta hiri bisitatuko dituzte: Figueres, Ampuria Brava, Girona, Bartzelona, Tossa de Mar...

Bakoitzak 220 euro ordaindu beharko ditu, eta dena egongo da prezio berruan. Izena eman lehenbailehen.

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

ESKORIATZA ERRETEGIA
Tfno 714345
MENDIOLA
Bazkari eta afariak
Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

TTUKUN
• Fotokopiak
• Liburu josteak
• Fotokopiak koloretan
• Planoen kopia
• Offset-a
Ferreries 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



ARRASATE
Mirian Rodríguez
Uztailaren 19an, 15 urte.
Zorionak, *morbosa!* Koadrilakoen partetik.



ARRASATE
Ainhoa Lizarralde
Abuztuaren 5ean, 9 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Marta Lizarralde
Abuztuaren 1ean, 10 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Maitane Dávila
Uztailaren 20an, 16 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Ibai Zeziaga
Uztailaren 18an, 5 urte.
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE
Jone Uribesalgo
Uztailaren 25ean, 6 urte.
Zorionak! Aitaren, amaren eta familiakoen partetik.



ARRASATE
Mikel Sasiain
Uztailaren 27an, 4 urte.
Zorionak eta muxu handi bat! Lierni eta Alberto.



ARRASATE
Cristian Pozo
Uztailaren 22an, 9 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Asier eta Andoni Azkarate
Uztailaren 23an, 3 urte. Zorionak!
Maialen, Nerea eta gurasoak.



ARRASATE
Jose Luis Azkarate
Uztailaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak! Ama, Cesar, Sergio, Larraitz eta Saioa.



ARRASATE
Espe Berezibar
Abuztuaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Familiakoak.



ARRASATE
Miren Otxoa
Uztailaren 27an, 2 urte.
Zorionak! Aitor eta etxe-koak.



ARRASATE
Maite Iriondo
Uztailaren 28an, urtebetetzea. Zorionak! Aitor eta etxe-koak.



ARRASATE
Maialen Zabaleta
Abuztuaren 5ean, 10 urte.
Zorionak! Ziorlakoak eta etxe-koak.



ARRASATE
Miren Lasa
Abuztuaren 10ean, 17 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Naiara Madariaga
Uztailaren 26an, 27 urte.
Zorionak! Koadrilakoen partetik.



ARAMAIO
Ana Agirre
Abuztuaren 27an, 15 urte.
Zorionak! Etxekoen partetik.

Adi!


Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeari komeni da.

EZETZASMATU



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Col-hogar komuneko papera
12 erroilu

2,15€ 358 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ROSA GONZALEZendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Rosa!
Galderen erantzun zuzena:
Bergararenak dira Epeletik
Kanpanzarrerako lurrak

Zein urtetan izan zen Kilometroak jaia Arrasaten?
Arrastoa: Jose Antonio Altuna Txatillo ibili zen guztia koordinatzen.

ARRASATEKOHISTORIA

Seber Altube: musikari,
linguista eta alkate

JON ANDER RAMOS

Arrasaten jaio zen, 1879an, eta Gernikan hil zen, 1963an. Altubetarrek eta Sebertarrek tradizio handia izan dute Arrasateko musikagintzan. Herriko musikaren kulturari izen handiko kideak eman dizkiote bi familiok; eta horietako batzuk Arrasatetik kanpora ere barreiatu dira (Seber Altube, Gaspar Madinabeitia, Albina Madinabeitia...).

Herriko Musika Bandan Altubetar ugari egoteaz gain, gaita jotzaileen banda ere atera zen familia hartatik. Benigno eta Seber Altubek Cristobal Bediarekin batera aurreneko banda osatu zuten, dultzaina metalikoak erabilia eta brodatutako liradun txapel gorriarekin. Geroago Miguel San Pedro Altube gehitu zitzaion taldera, eta XIX. mendearen amaiera aldean eta XX. mendearen hasieran entzute handia lortu zuten. Dultzaina jotzaile taldeen lehiaketetan parte hartzen zuten, eta oso emaitza onak eskuratu. Esaterako, 1892an irabazleak izan ziren Lizarrako Txapelketan. Arrasateko Pradere iturgin-berunlarien

*Arrasateko Pradere
familiak egindako
dultzaina
metalikoekin jotzen
zuten*

*Musikaria izateaz
gain, linguista
handia izan zen;
euskararen kezka ia
txikitatik zekarren*

familiak egindako dultzainak jotzen zituzten, hain zuzen. Seberri dagokionez, umetatik hazi zuten musikan. Sasoiko parroko Tuburcio Zararainek solfeo eta elizako organoa jotzen erakutsi zion. Hala, geroago, Seber Musika Bandako kide izan zen, baita solfeo irakasle ere; eta 20 urterekin (1899an) Udal Bandaren zuzendaria izendatu zuten.



SEBERO ALTUBE, JOSEMARI VÉLEZ DE MENDIZABAL

Seberrek, anaia Benignok eta Cristobal Bediak sasoi hartan Euskal Herriko dultzaina jotzaile talde onena osatzen zuten.

1902an, Gernikako Musika Bandaren zuzendari postua eskuratu zuen eta hara bizi izatera joan zen. Herritarren aurrean aurkezteko eman zuen kontzertuan, Gernikako emaku-

me bat Seberrekin maitemindu zen; zera esan ei zuen: "Hau neuretako izan bihar da". Eta hala izan zen: 1918an Seber Altube eta Gregoria Gangoiti ezkondu egin ziren. Alkartasuna

izeneko arma lantegi bat zuen emaztearen familiak, eta hango kudeatzaile izan zen Seber. Eta Gernikako Bandako eta Orfeoiko zuzendari izateaz gain, Gernikako alkate ere izan zen.

Txirritola

ARAMAIO / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 74. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Gazteek kultura etxekoa ez den lokal bat eskatu dute, gaztetxe moduan erabiltzeko

U.M.

Oporren aurreko azkeneko osoko bilkura egin zuten herenegun, martitzena. Landutako gaien artean, besteak beste, Udalaren diru-kontuak izan zituzten berbagai. Horrez gainera, gazte lokalen gaia ere landu zuten zinegotziek, baina ez zuten erabakirik hartu.

Gazte lokalei dagokienez, alkateak jakinarazi digu gazteengandik proposamen berria jaso dutela. Itxura denez, Udalarari adierazi diote ez dutela kultura etxeko lokalik gura, baizik eta bestelako edozein lokal, euren gaztetxe moduan erabiltzeko eta antolatzeko. Hala, besteak beste, gazteek ezarriko lituzkete arauak. Hain justu, Ibargoiaren Udalak duen etxe bat eskatzen dute gazteek hori egiteko.

Baina Mertxe Mondragonek jakinarazi digu gazteek nahi duten lokal hori datorren urtera arte okupatuta dagoela eta, horren ondorioz, oraingo ezin dietela utzi, eta bestelako lokalik ez dutela gazteei uzteko moduan. Hala, esan digu orain gazteen esku dagoela erabakia. Hau da, Udalean zain daude gazteek Udalak egindako



Irailaren 17an egingo du udalbatzarrak oporren osteko lehenengo osoko bilkura.

proposamenari (kultura etxeko gazte lokalekin lotutakoa) baietza edo ezetza ematen dioten. Eran-tzuna ezezkoa bada, gazteek euren kabuz moldatu beharko dute.

BESTELAKO GAIAK

Gazte lokalez gainera, bestelako gaiak ere landu zituen udalbatzarrak. Hain zuzen ere, Nagore Artamendi idazkariak esan digunez,


irailera arte osoko bilkurarik ez dagoenez, pilatutako gaiei irtenbidea emateko egin nahi izan dute oraingo asteko batzarra.

Landutako gaien artean, adi-

Pilatutako gaiei irtenbidea emateko egin nahi izan dute oraingo asteko batzarra

bidez, Residencial Goal enpresak Aramaioko Udalarari eman behar dion diru-sarrera izan zuten berbagai. Kontua da enpresa horrek etxeak eraiki behar dituela eta, herriko lurak erabiltzeagatik dirua eman behar diola Aramaioko Udalarari: 15 mila euro pasatxo. Diru horren ordainketa zelan egin aztertu behar zuten batzarrean.

Horrez gainera, eta diru kontuekin segituz, irailari begira diru sarrera berriak lortzeko bideak aztertu behar zituzten. Udal batzordeei urtea bukatzeko duten diru-partiden berri eman behar zieten. Eta Andra Mari Kofradiak eliza konpontzeko eskatutako laguntza ere aztertu behar zuten. Dena dela, albiste hau bukatzean batzarra egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu zituzten.



Arriola-Arexolako mugako argazkia

Hara hor zelako argazkia bidali diguten Arriola-Arexola ingurutik! Ezkerretik hasita Nerea Arrese, Leire Arregi eta Larraitz Arrese dira hiru neskatilak. Arriola-Arexolako mugan dago aterata argazkia, auzoko jaietan. Primeran ibili zirela kontatu digute, gainera. Bestalde, eurretako bat, Nerea Arrese Kolonbian dago lanean, laguntzen; hain justu, bera han dagoenez, familia berarekin gogoratzen dela eta ekarri digute argazkia. Abuztu amaieran bueltatuko ei da Nerea etxera. Bada, bien bitartean, ondo ibili!

LABUR

Udaletxea itxita egongo da abuztuan bi astez

Abuztuan pare bat astean oporrrak hartuko ditu herriko udaletxeak. Hain zuzen ere, itxita egongo da abuztuaren 11tik 22ra bitartean. Hori bai, tarte horretan larrialdiren bat izanez gero, Udalak laguntza telefonoak utziko ditu herri-tarren eskura. Udaletxeko telefonora deituz gero, automatikoki jakin ahal izango dira zenbakiok (945 44 50 16).

Eta abuztuaren 11ra arte eta abuztuaren 22tik aurrera, iraila barne, udako ordutegiarekin ibiliko dira: 09:00etatik 14:00etara.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martín Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuñako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deltu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ZERGA ORDAINDU BEHARRA

Datorren egunean, hilak 31, bukatuko da Hiri eta Landa-lur Ogasun Higiezi-
nen gaineko zerga ordain-
tzeko epea. Ordainketa
Vital Kutxan egin beharra
dago. Eta aipatutako epea
gaindituz gero, ordainagi-
riak %20ko ginkarguare-
kin kobratuko dituzte.
Helbideratuta zituzenen
ordainagiriak joan den
uztailaren 10ean kobratu
zituzen.

OSASUN ETXEA ABUZTUAN

Abuztuan Aramaioko
osasun etxean ez da aldake-
tarik izango, eta betiko
ordutegian jardungo dute
lanean: 08:00etatik 20:00ak
arte. Bestalde, gogoratu
Inspektzioko Bulegoan
udako ordutegiarekin
dabiltzala lanean: 09:00eta-
tik 14:30era arte. Eta hala
jarraituko dute abuztuan
eta irailean.

UZTAILEKO ZINEMA

Oraingo zapatuan *La
máscara del faraón* filma
emango dute kultura
etxean, 22:00etan. Era
berean, gogoratu irailera
arte zapatuetan izango dela
zinema saioa.

Parte-hartze handia Erretiratu- Astean; zapatuan bazkaria izango da

U.M.

**Bide onetik doa aurtengo Erretiratu-
Astea. Orain arteko ekimenetan,
behintzat, parte-hartze handia
izan da. Eta zapatuko bazkari-
rako ere gauza bera espero
dute antolatzaileek, Alaia
Elkartekoek. Menu goxoa eta
opariak izango dira.**

Ehun bat lagunek eman du izena etzi, zapatua, eskolako jangelan egingo duten bazkarirako. Aramaioko erretiratuak, alargunak eta pentsiodunak izango dira bazkari horretan. Hala adierazi digute Alaia Elkarteko kideek. Esandakoaren arabera, Gertu izeneko enpresak menu goxo-goxoa prestatuko die guztiei; bazkalostean, euren sasoiko kantuekin dantza egiteko aukera izango dute. Eta gero opariak banatuko dituzte: hiru opari, orain arte oparirik jaso ez duten zaharrendakoak (80 urtetik gorakoak dira).

Horrez gainera, orain arteko ekimenetan parte-hartze handia egon da. Astelehenean, adibidez,



Erretiratuak adi-adi egon ziren astelehenean Susana Martínez gizarte langilearen esanak entzuten.

Susana Martínezek oinarrizko gizarte zerbitzuen gaineko ber-
baldia egin zuen; martitzenean,

osasuna izan zuten berba-
gai Javier Esapaña medikuaren
eskutik. Eta, eguaztenean, auto-

busa bete lagunek parte hartu
zuten Araban barrena egindako
txangoan.

BOTEPRONTOAN/ Reme Berasategi · Eskularen irakaslea

“Hogei urte daramatzat; Gasteizen hasi nintzen ikasten, eta harrezkero ikastaroak egiten nabil”

Aramaiar askok ezagutzen dute Reme irakaslea, batez ere emakumeek. Hura da eta aspalditik eskularen irakasten ibiltzen dena. Zamoran jaio zen, baina urte eta erdierekin Agurainera joan zen bizi izatera. Gero, Aramaioko lagunarekin ezkondu zen, eta 26 urtez Aramaion bizi izan eta gero, orain Agurainera itzuli beharko du, senarraren lan kontuen ondorioz. Dena dela, ziurtatu digu uzten dioten bitartean, behintzat, Aramaion segituko duela, emakumei eskularen irakasten, hain zuzen ere:

Zelako eskularen irakusten dituzu?

Denetik. Eztainua bozeltzen, zeramika dekoratzen, egurra lantzen eta dekoratzen, zaharberritzen, makramea... Edozelan ere, gaur egun eskularen irakasten asko ez dira egiten. Nik 20 urte daramatzat honetan; Gasteizen hasi nintzen ikasten, eta harrezkero ikastaroak eta ikastaroak egiten ibili naiz. Eta gauza asko ikasi ditut, baina badira batzuk gaur egun ez direla egiten: makramea, hiru dimentsiotako margolanak... Ni orain oihalekin nabil lanean, ohe-estalkiak egiten, jendeak beira asko lantzen eta dekoratzen du, egurra... Izan ere, gauza erabil-



garriak egin ditzakete, dekorazio hutserako gauzak egin beharrean. Ni orain *Tyfanis* ikasten nabil, zatitutako beirarekin egiten diren lanparak. Asmoa da gero hori erakustea. **Hortaz, etengabe ikasten eta berritzen ibili behar duzu...** Bai, beti. Urte osoa ematen dut ikastaroren baten. **Orain Aramaioko emakumeekin zabilzate; baina lehenago umeekin ibilitakoa zara, ezta?** Bai. Hamar urtez ibili nintzen eskola-ordu kanpo eskularen irakusten. Sasoi hartan, gainera, ume mordo zegoen. Hasierako urteetan hirurogei ume inguru nituen. **Nolatan utzi zenuen hori?** DBHren legea aldatu zutenean, Aramaioko umeak kanpora joaten hasi ziren. Hala, nagusiak falta ziren; eta akaso txikiak aspertu-edo egin ziren. Gaur

egun, umeek batez ere kirolak, musika, hizkuntzak... ikasten dituzte. **Arrasatez gain, inguruan ere bazabiltza, ez?** Eskoriatzan 13-14 bat urte daramatzat; Arrasaten sei urte; eta Aramaion, orain, emakumeekin sei-zazpi urte. **Zenbat talde dituzu? Eta zein ordutegi?** Aramaion bi. 13-14 laguneko taldeak. Itur Zuri elkarteak antolatutako ikastaroak dira. Orain arte martitzenetan eta eguenean ematen nituen eskolak. Baina datorren ikasturtean egun bakarrean emango dut dena, Aguraindik etorri behar izango dudanez... Asmoa da eguenean ematea. **Irailean...** Umeak eskolan hasten direnean hasi ohi gara. **Eta hortik aurrera?** Jarraitzea espero dut; dena dela, horrelakoetan erakundeen dirulaguntzekiko mendekotasun handia izaten da. **Zein mailatako eskolak ematen dituzu: hastapenekoak...** Ikasleen arabera. Batzuk denbora-pasa moduan etortzen dira, jendearekin harremanetan jartzeko; eta beste batzuek sakonago landu nahi izaten dute euren lana.

“Eskoriatzan 13-14 bat urte daramatzat; Arrasaten, sei urte; eta Aramaion, sei-zazpi urte”

“Aramaioko taldera Arrasateko jendea ere etortzen da. Parte hartzeko Itur Zurirajo behar da”

ERRETRATUZAHARRA

UCEAko futbol taldea, 1958-59

Oraingo asteko argazki zahar-
rean UCEAko futbol taldearen
gainean egingo dugu berba. UCEAk Union Cerraje-
ra Escuela Aprendices esan gura du.
Gure argazkia 1958-59 denboraldikoa
da; UCEA bi urte lehenago sortu zuten.
Aprendizen Eskolako Daniel anaia
(biatorista) tartean izan zen sorrera
hartan.

Futbol taldearen gainean esan
beharra dago 1964-65 denboraldira arte
jardun zuela futboleant, Juventud
Deportiva Mondragonek bere kargu
hartu zuen arte, hain zuzen ere.

Argazkia Iturripeko lehengo zelaian
dago aterata. Hasieran Zalduspen
jokatzen zuten, Cerrajeraren jabetzako
lurretan, eskualdeko ospitalearen
parean.

Honako hauek agertzen dira
argazkian, zutik ezkerretik eskumara:
Luis M^a Beltran, Alejandro Ezkurra,
Cecilio Berezibar Txaparro, Juan M^a
Garitano, Jose M^a Elkorro, Alberto
Baltzategi eta Roman Zumelaga. Eta
behean, ezkerretik eskumara: Jose



Antonio Urkiola, Txomin Madinabeitia,
Alfonso Eraña, Julian Errasti eta Jose
Luis Aretxaga *Trampa*.

Sasoi hartan ez zegoen gazte
mailako kategoriarik. Txapelketa
guneka egiten zen, probintzian. Eta
talde bakoitzetik sailkatzen zirenek
probintziako ligan jokatzen zuten. Hala,

probintziako talde onenen arteko
partiduak ikus zitezkeen: Real Union,
Reala, Eibar, Deportes Elizondo,
Mutrikuko Burumendi...

UCEAko jokalarien artean, adibi-
dez, Jose M^a Elkorro nabarmendu
beharra dago; Alavesen eta gazte
mailako Estatuko taldean jokatu zuen.

Nabarmendu ziren bestelako jokalaria
bi, adibidez, Sagasta *Mane* eta Aranba-
rri izan ziren; Realean jokatu zuten.

Argazkia: Alberto Baltzategi,
Informazioa: Alberto Baltzategi eta
Pedro Mari Arizabaleta.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Frantsesak
Arrasaten
1809an

Ondoko irudia ez da
erretratu zahar bat,
Arrasate Gure Herria
liburutik hartutako margo bat
baizik. Frantziako Iraultzaren
eraginez frantziarrak Gipuzkoa-
ra etorri ziren. 1724an frantzia-
rrek Gipuzkoako hainbat herri
hartu zituzten: Hondarribia,
Pasaia, Errenteria... Hainbat
herrik borroka egin zuten,
baina Donostiarrek, adibidez, ez
zuten horrelakorik egin.



≈ 1809 Margo hori Zaldibar inguruan egin zuten.
Gaur egun Biteri etorbidea dagoen lekuan
hainbat gorpu azaltzen dira, urkatuta.



2003 Orain dela berrehun urteko Arrasate harresiek
mugatzen zuten. Oraindik, baina, erdialdea da
Arrasateren bihotz.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

AGR
García Ripa
ERREFORMAK S.L.

Erakusketak eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

LAKET

Bonaventure
Diesel
Pepe
Levis

Otalora z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

Ferreriasko jaiak

Uztailaren 26an:

09:00etan etxafuegoak

12:00etan txistularien kalejira

17:00etan Haur jolasak, zaku lasterketa, txokolate-jana, e.a.

19:00etan Txistularien kalejira, herri poteoa, Ferrerias kaleko

web orriaren aurkezpena Ostantz tabernan, 7 eta 14 urte

arteko mutikoendako lasterketa, joko eta lehiaketak

19:00etan kaleko hildakoen aldeko meza parrokian

21:00etan herri afaria

23:00etan dantzaldia Gau-Alai taldearen eskutik

OHARRA: afarirako txartelak salgai Artea Eskulanak eta Markoztatzeak dendan.



Etxe
mobiliario y
decoracion

**OBRAK ETA
BARRUKO
PROIEKTUAK**

Ferrerias, 17
Tel. eta faxa:
943 79 03 17
ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

MERKEKILO

Oihalak
Gortinak

Ferrerias, 5
Tel.: 943 79 15 00

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Ispiluak, Margoak

Ferrerias, 11
Tel.: 943 77 10 95
ARRASATE

**“Ilusioak
banatzen”**

ONCE

Ferrerias, 12
Tel.: 943 71 24 66



Ferreriasko jaiak



N & N sol

Solarium
eta
estetika zentroa

Ferrerias kalea 28, behea ARRASATE
Tel.: 943 79 64 57

Urizar
ostatua

Ferrerias 15
943 79 2 93

Jovi

10.000
KOLORETAKO MENUA

CARMEN

Ile apaindegia
Solariuma

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63



GORKA ILE APAINDEGIA

Abuztuan zabalik!
15etik 21era izan ezik
09:30etik 20:00etara

GORKA
ileapaindegia

Ferrerias 35 Arrasate
Tel : 943 77 13 78



BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 71170

angela

Ferrerias 35. Arrasate. 943 79 88 23



Ferrerias 28 C. 943 77 12 54. ARRASATE

Body piercing
eta
tatuajeak



Ferrerias, 28 behea, B
Tel.: 943 79 92 84